Bizkaia
iraunkortasuna eta ingurune naturala zaintzeko saila
departamento de sostenibilidad y medio natural

# BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN /2017 FORU DEKRETUA, REN (E)KOA, TALDEKAKO KIROL PROBAK BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO NATURAGUNE BABESTUETAN ETA MENDIETAN EGITEKO BAIMENA ARAUTZEN DUENA.

Jakina denez, mendi inguruetako leku erakargarrietan egiten diren kirol probek gorakada izan dute, eta, askotan, proba horiek egiteko lekuak Bizkaiko Lurralde Historikoko naturagune babestuak izaten dira. Naturaguneen erabilera berri horrek, modu egokian arautzen ez bada, arriskuan jar ditzake eremu babestuei balioa ematen dieten habitat eta espezieak, hain zuzen ere, eremu horietan zaindu behar diren arloak.

Gaur egun onartuta dago naturaguneen barruko erabilera publikoa arautu behar dela, leku horien kontserbazioaren inguruko herritarren komunikazio eta kontzientziarako aukerak optimizatzeko. Hala ere, ez da ahaztu behar erabilera publikoak mugak dituela, hain zuzen ere, natur ingurunearen kontserbazioa eta haren osagai bitxienak eta ahulenak babestea.

Izan ere, natur eremuetako jarduerak, instalazioak eta jendearentzako

# DECRETO FORAL /2017, DE DE DE LA DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA POR LA QUE SE REGULA LA AUTORIZACIÓN PARA LA CELEBRACIÓN DE PRUEBAS DEPORTIVAS COLECTIVAS EN ESPACIOS NATURALES PROTEGIDOS Y MONTES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA.

Es conocido el auge de las pruebas deportivas en lugares atractivos de los espacios de montaña, que incluyen los espacios naturales protegidos del Territorio Histórico de Bizkaia como escenario de dichas actividades. Este nuevo uso puede poner en peligro, si no se regula adecuadamente, las especies y los hábitats que dan valor a los espacios protegidos y son el objeto de conservación de los mismos.

Se admite que el uso público en el interior de estos espacios debe ser regulado para optimizar las oportunidades de mejorar la comunicación y conciencia ciudadana respecto a la conservación de estos lugares, sin olvidar que este uso público debe estar supeditado a la conservación del medio natural y a la protección de sus elementos más singulares y vulnerables.

En efecto, los planes de uso público, instrumentos cuya aprobación está

zerbitzuak erabilera publikoko planen menpe daude (plan horien onespena Bizkaiko naturagune jakin batzuen antolamendu eta kudeaketarako agirietan aurreikusita dago), betiere kontuan hartuta eremu horietako zonifikazioa, harrera-gaitasuna eta ingurumen-kontserbazio eta -sentsibilizazioko helburuak.

prevista en los documentos de ordenación y gestión de determinados espacios naturales de Bizkaia, ordenarán las actividades, instalaciones y servicios al público, teniendo en cuenta la zonificación de estos espacios, la capacidad de acogida y los objetivos de conservación y sensibilización ambiental.

Bizkaiko Foru Aldundiaren herri onurako mendien eta ondare-mendien kasuan, 3/2007 Foru Arauak aldatutako ekainaren 2ko 3/94 Foru Arauak ezarritakoaren arabera, erakunde titularren adostasuna eta mendien arloan eskumena duen foru sailaren baimena beharrezkoak dira era horretako jarduerak egiteko.

Asimismo, respecto a los Montes de Utilidad Pública y Montes Patrimoniales de la Diputación Foral de Bizkaia la normativa vigente Norma Foral 3/94 de 2 de junio, modificada por la NF 3/2007 regula que la realización de dichas actividades, además de contar con la conformidad de los organismos titulares precisará de autorización del departamento foral con competencia en materia de montes.

Aurrekoa oinarri hartuta, Bizkaiko Lurralde Historikoko naturagune babestu jakin batzuetan, Bizkaiko Foru Aldundiaren ondare-mendietan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko herri-onurako mendietan egiten diren taldekako kirol probak arautu behar dira, jolas-erabilera horiek modu iraunkorrean antolatzeko. Horretarako, baimena emateko prozedura bat proposatuko da eta adierazitako lurraldean aplikatuko diren ingurumenaren arloko baldintzak ezarriko dira.

En base a lo indicado procede regular la celebración de pruebas deportivas colectivas que se realicen en determinados espacios naturales protegidos del Territorio Histórico de Bizkaia, en los montes patrimoniales propiedad de la Diputación Foral de Bizkaia, y en los montes de utilidad pública del Territorio Histórico de Bizkaia para ordenar de manera sostenible dichos usos recreativos, proponiendo un procedimiento de autorización y estableciendo una serie de condicionantes ambientales que se aplicarán en el ámbito territorial señalado.

Euskadiko Natura Babesteko Legearen testu bategina onesten duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak argi eta garbi uzten du foru organo eskudunei dagokiela naturagune babestuak kudeatzea, eta, beraz, naturagune babestuen erabilera publikoa arautzea. Dekretu horren arabera, mehatxupean dauden flora eta faunaren espezieei kalte egin ahal dieten jarduketak mugatzeko ahalmena dauka foru organoak.

El Decreto Legislativo 1/2014, de 15 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Conservación de la Naturaleza del País Vasco aclara que corresponde a los órganos forales competentes la gestión de los espacios naturales protegidos, y por tanto regular el uso público de los mismos, y otorga al órgano foral la potestad de limitar actuaciones que puedan afectar a las especies de flora y fauna amenazadas.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren egitura organikoa arautzen duen maiatzaren 23ko 70/2017 Foru Dekretuak eginkizun hauek ezartzen dizkio Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari: naturagune babestuak kudeatzea, natur ondarea zaintzea eta Arriskuan dauden Espezien Euskadiko Zerrendan sartutako basoko fauna eta flora kudeatzeko planak gauzatzea. Eginkizun horiek foru sail horretako Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren bidez betetzen dira, eta Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua haren menpe dago, organikoki. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren ondare-mendien eta herri-onurako mendien kudeaketa sail horretako Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiari dagokio.

El Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 70/2017, de 23 de mayo, por el que se regula la estructura orgánica del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural, atribuye al Departamento Foral de Sostenibilidad y Medio Natural la gestión de los espacios naturales protegidos, la conservación del patrimonio natural y la ejecución de Planes de Gestión de Fauna y Flora Silvestre incluida en el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas. Estas funciones son ejercidas a través de la Dirección General de Medio Ambiente del citado Departamento Foral, de la que depende orgánicamente el Servicio de Patrimonio Natural. Así mismo, la gestión de los montes de utilidad pública, y patrimoniales de esta Diputación Foral se atribuye a la Dirección General de Agricultura de este mismo Departamento.

Foru-dekretu honek bete egiten ditu

El presente Decreto Foral responde a

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurrez ikusi eta Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotako erregulazio onaren printzipioak.

los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y recogidos en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017 de 17 de enero por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Foru-dekretu honetan, genero-ikuspegia jasotzen da, bai hura prestatzeko orduan bai haren aplikazioan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoarekin bat. Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Izan ere, foru-dekretu horren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean dago aurrez ikusita. Ildo horretan, dekretu honen izapidetzean foru-dekretu horren 2. artikuluan aipatzen den txostena sartu da, hau da, «Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena».

El presente Decreto Foral incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. En este sentido, en su tramitación se incorpora el «Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género» al que hace referencia el artículo 2 del citado Decreto Foral.

Ildo horretan, foru-dekretu hau prestatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru

Igualmente, en la elaboración del presente Decreto Foral se han tenido en cuenta los trámites establecidos en el

Dekretuan ezarritako izapideen arabera jardun da (dekretu horrek Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen du): aurretiazko kontsulta publikoaren eta entzunaldiaren izapidea, herritarrek iritzia eman dezaten eta txosten juridikoak eta legezkotasunari buruzkoak jasotzeko, bai eta kontrol ekonomikoko txostena eta generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena ere.

Hori dela bide, eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17. eta 64.3 artikuluetan emandako ahalmenak erabiliz, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2017ko ren (e)ko bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua: Xedea

Araudi honen xedea hau da: Bizkaiko Lurralde Historikoko naturagune babestu jakin batzuetan, Bizkaiko Foru Aldundiaren ondare-mendietan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko herri-onurako mendietan taldekako kirol

Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, efectuándose consulta pública previa, dando trámite de audiencia a fin de recabar la opinión de la ciudadanía de Bizkaia y recabando los preceptivos informes jurídicos y de legalidad; así como el informe de control económico y el ya mencionado informe de evaluación previa de impacto de género.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural y en uso de las facultades conferidas por los artículos 17 y 64.3 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y previa deliberación de la Diputación Foral en su reunión de de ________ de dos mil diecisiete:

DISPONGO

Artículo 1: Objeto

El objeto de la presente normativa es establecer la obligatoriedad de obtener la autorización para la realización de pruebas deportivas colectivas que se realicen en determinados espacios naturales protegidos del Territorio

probak egiteko baimena lortzeko betebeharra ezartzea eta baimen hori emateko baldintzak arautzea.

Histórico de Bizkaia, así como en los montes patrimoniales propiedad de la Diputación Foral de Bizkaia y en montes de utilidad pública del Territorio Histórico de Bizkaia, así como regular los requisitos para la obtención de la citada autorización

2. artikulua. Baimena lortzeko betebeharra

Bizkaiko Foru Aldundiaren baimena lortu behar da hurrengo artikuluan deskribatzen diren eremu eta mendietan taldekako kirol probak egiteko.

Artículo 2: Obligación de obtener autorización

Quedan sujetas a autorización de la Diputación Foral de Bizkaia la celebración de pruebas deportivas colectivas en los espacios y montes descritos en el artículo siguiente.

3. artikulua. Aplikazio-eremua.

Foru dekretu honen menpe daude, soil-soilik, Bizkaiko Lurralde Historikoaren barruko taldekako kirol probak, baldin eta haien ibilbidearen zati bat edo osoa eremu hauen barrutik igarotzen bada: I. eranskinean zerrendatu eta kartografiatutako naturaguneak, Bizkaiko Foru Aldundiaren ondare-mendiak edo Bizkaiko Lurralde Historikoko herri-onurako mendiak.

Artículo 3: Ámbito de Aplicación.

Este Decreto Foral afecta únicamente a aquellas pruebas deportivas colectivas cuyo recorrido discurra, dentro del Territorio Histórico de Bizkaia, de forma parcial o en la totalidad de su trazado dentro de los límites de los espacios naturales listados y cartografiados en el Anexo I, así como las que discurran por montes patrimoniales de esta Diputación Foral o por Montes de Utilidad Pública del Territorio Histórico de Bizkaia.

4. artikulua- Taldekako kirol proba.

Araudi hau aplikatzeko, taldekako kirol probak jarduera hauek dira: lehiatzeko helburuarekin edo halakorik gabe, oinez,gizakiek tiratutako edozein ibilgailu erabiliz (bizikletaz...), zaldiz edo beste animalia espezie batzuk erabiliz egiten diren ibilaldiak eta lasterketak,

Artículo 4.-Prueba deportiva colectiva.

Se consideran a efectos de aplicación de esta normativa como pruebas deportivas colectivas, aquellas actividades, competitivas o no, que consistan entre otras, en marchas y carreras a pie o en cualquier tipo de vehículo movido por tracción humana

eta antolaketaren barruan alderdi hauetako bat edo batzuk badaude:

- Markak, balizak edo ibilbidearen seinaleztapena
- Parte hartzaileen igarotzea kontrolatzeko guneak
- Jan-edanak banatzeko egokitutako lekuak
- Ikusleak egoteko tokiak
- Herritarren segurtasunari eta babes zibilari (polizia eta trafikoa) abisua ematea
- Larrialdietako ekipamenduak egotea
- Antolakuntzako komisarioak egotea
- Antolatzaileentzako motordun ibilgailuak

tales como las bicicletas, a caballo, o que impliquen la utilización de otras especies animales y que lleven aparejadas en su organización una o varias de las siguientes cuestiones:

- Marcas, balizaje o señalización del recorrido.
- Puntos de control de paso de participantes.
- Puntos habilitados para reparto de avituallamientos.
- Zonas o presencia de público.
- Aviso a Protección civil y Seguridad ciudadana (Policía y Tráfico)
- Presencia de equipos de emergencia.
- Presencia de comisarios/as de organización
- Vehículos a motor para la organización.

## 5. artikulua.- Debekuak eta mugak

Motordun ibilgailuekin egiten diren kirol probak debekatuta daude araudi honen mendeko naturagune babestuetan (I eranskina).
Ondorio horietarako, motordun ibilgailuak dira motor elektrikoa duten bizikletak eta pertsonen joan-etorrietarako motor elektrikoa erabiltzen duten sistema guztiak.

Aurreko mugak gorabehera, 3/2007 Foru Arauak aldatu duen Mendiei eta Babespeko Naturguneen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/94 Foru Arauak arautzen du Bizkaiko

## Artículo 5.- Prohibiciones y limitaciones

Las pruebas deportivas que se desarrollen por medio de vehículos a motor quedan prohibidas en los Espacios Naturales Protegidos a los que afecta esta normativa (Anexo I).
A estos efectos se considerarán también vehículos a motor las bicicletas con motor eléctrico así como cualquier sistema de desplazamiento para las personas que se sirva de un motor eléctrico para dicho desplazamiento.

Sin perjuicio de las anteriores limitaciones, la circulación de vehículos motorizados en los montes de utilidad

Foru Aldundiaren herri-onurako mendietako eta ondare-mendietako motordun ibilgailuen zirkulazioa

pública y montes patrimoniales de la Diputación Foral de Bizkaia queda regulado conforme a lo estipulado en la Norma Foral de Montes y Administración de Espacios Naturales Protegidos 3/94 de 2 de junio modificada por la NF 3/2007.

**6. artikulua: Izapidetzea.**

6.1) Eskabidea.

Kirol proba antolatzen duen erakundeak eskatu behar du baimena, eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari egin beharko dio eskaera, kirol proba egin baino hiru hilabete lehenago, gutxienez.

Baimen-eskaera bakarra izango da, eta gutxienez, ondoko alderdi hauek zehaztuko ditu:

a) Erakunde antolatzailearen eta haren ordezkariaren datuak.
b) Baimendu nahi den jardueraren deskribapena (probaren memoria eta erregelamendua).
b.1)-Datak eta ordutegiak.
b.2) Parte-hartzaileak.
b.3) Erabiliko diren bitarteko mekanikoak edo ibilgailuak
c) Probarako aurrez ikusitako trazatua, formatu digitalean, honako hauek zehaztuta: jan-edanak banatzeko tokiak,

**Artículo 6: Tramitación.**

6.1) Solicitud.

La obligación de solicitar la autorización establecida corresponde a la entidad organizadora de la prueba deportiva que deberá dirigirla al Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural con una antelación mínima de tres meses a la fecha de celebración de la prueba.

La solicitud de autorización será única y contemplara, como mínimo, los siguientes extremos:

a) Datos de la entidad organizadora y de su representante.
b) Descripción de la actividad (Memoria y reglamento de la prueba) para la que se solicita la autorización.
b.1)-Fechas y horarios.
b.2) Participantes.
b.3) Medios mecánicos o vehículos a utilizar.
c) Trazado previsto para la prueba, en formato digital, con ubicación de los puntos de

kontrol-guneak, aparkatzeko tokiak, probaren aurreko egunetan entrenamenduak egiteko aurreikuspenak...

d) Trazatuan aurrez ikusten diren egokitzapenak (garbiketak, belar-sastrakak kentzea...).

e) Ingurumen-neurriak: hondakinen minimizazioa, bilketa, markak, marken tipologia...

avituallamiento y controles previstos, lugares de aparcamiento, previsión de entrenamientos días previos a la prueba, etc.

d) Adecuaciones del trazado (limpiezas, desbroces, etc.) previstos.

e) Medidas ambientales contempladas: minimización de residuos, recogida, tipología de las marcas, etc.

Horretarako, dekretu honen II. eranskinaren formularioa erabili ahal izango da.

A tal efecto podrá ser usado el formulario que figura como Anexo II al presente decreto.

6.2) <u>Eskabidea ebazteko betebeharra eta ebazteko epea</u>

6.2) <u>Obligación de resolver la solicitud y plazo de resolución</u>

Administrazioak hiru hilabeteko epea izango du taldekako kirol proba baimentzeko eskaera ebazteko. Epe hori eskabideari buruzko ebazpen espresurik eman gabe igarotzen bada, baimena ukatu egin dela ulertuko da, nahiz eta Administrazioak ebazpena emateko betebeharra izan.

La administración dispondrá de un plazo de tres meses para resolver sobre la solicitud de autorización de las pruebas deportivas colectivas. Trascurrido dicho plazo sin que se hubiera formulado resolución expresa está se entenderá denegada, sin perjuicio de la obligación de la administración de resolver la solicitud.

Eskabidean antzematen diren hutsuneak eta okerrak zuzentzeko epea administrazio prozedura erkidearen arloan indarrean dagoen araudian ezarritakoa izango da.

El plazo de subsanación de deficiencias y errores detectados en la solicitud será el establecido en la normativa en vigor sobre procedimiento administrativo común.

Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko

La obligación de resolver la solicitud de

titularrari dagokio kirol proba baimentzeko eskabidea ebaztea.

6.3) Eskabideak izapidetzea:

a) Ibilbide osoan edo zati batean I. eranskinean jasotako parke natural, biotopo babestu edo kontserbazio bereziko eremuetatik igarotzen diren probak:

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuak ebazpen-proposamena igorriko dio Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko titularrari.

Naturagune babestu horietan Bizkaiko Foru Aldundiaren ondare-mendiak edo herri-onurako mendiak badaude, txostena eskatuko zaio Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusiko Baso Zerbitzuari, eta hark Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuan aurkeztuko du, foru aginduaren proposamenean kontuan har dadin.

b) Ibilbide osoan edo zati batean Bizkaiko Foru Aldundiaren ondare-mendietatik edo herri-onurako mendietatik igarotzen diren probak, araudi honetan jasotako naturagune eremuei eragiten ez dietenak:

autorización de las pruebas deportivas colectivas le corresponde a la persona titular del departamento de Sostenibilidad y Medio Natural.

6.3) Tramitación de la solicitud:

a) Pruebas que discurran de forma total o parcial en los Parques Naturales, Biotopos Protegidos o en las Zonas Especiales de Conservación recogidos en el Anexo I:

El Servicio de Patrimonio Natural de la Dirección General de Medio Ambiente informará y elevará propuesta de resolución a la persona titular del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural.

En el caso de que en dichos espacios naturales protegidos se ubiquen Montes de Utilidad Pública o Patrimoniales de la Diputación Foral de Bizkaia, se requerirá previamente informe al Servicio de Montes de la Dirección de Agricultura, que lo aportará al Servicio de Patrimonio Natural para su consideración en la elaboración de la propuesta de Orden Foral.

b) Pruebas que discurran de forma total o parcial por Montes de Utilidad Pública o Montes Patrimoniales propiedad de la Diputación Foral de Bizkaia sin afectar a los espacios naturales recogidos en esta normativa:

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuak ebazpen-proposamena igorriko dio Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko titularrari.

El Servicio de Montes de la Dirección General de Agricultura informará y elevará la propuesta de resolución a la persona titular del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural.

Nahitaezkoa izango da Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuaren txostena, proba horien ibilbidea igarotzen bada Arriskuan dauden Espezien Euskal Katalogoan, «kaltebera edo «galtzeko arriskuan» kategorian dauden espezieak bizi diren tokietatik edo ugatzaren edo sai zuriaren eremu kritikoak eta sai arrearen koloniak babesteko mugatutako perimetroetatik, Euskal Autonomia Erkidegoan batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak kudeatzeko baterako plana onesten duen 83/2015 Foru Dekretuarekin bat etorrita. Baterako plan horretan ezartzen dira kirol probak baimentzeko bete behar diren baldintzak.

Será preceptivo informe del Servicio de Patrimonio Natural cuando dichas pruebas transcurran por lugares con presencia de especies incluidas en el Catalogo Vasco de Especies Amenazadas en las categorías Vulnerable o En Peligro de Extinción y, especialmente, en los perímetros delimitados para la protección de las áreas críticas para el alimoche o el Quebrantahuesos o para la protección de las colonias de buitre leonado establecidos en el Decreto Foral 83/2015 por el que se aprueba el plan conjunto de gestión de las aves necrófagas de interés comunitario de la CAPV, que establecerá las condiciones que a este respecto deban recogerse en la autorización.

7. artikulua. Probak egiteko baldintza orokorrak

Artículo 7: Condiciones Generales de celebración de las pruebas

7.1) Baimentzen diren taldekako kirol probek baldintza hauek bete behar dituzte:

7.1) Las pruebas deportivas colectivas que se autoricen deberán realizarse en las condiciones siguientes:

a) Parte-hartzaileen gehieneko kopurua eta proben ordutegia:

a) Límites en el número máximo de personas participantes y horario de las pruebas:

a.1) Espezie basatien ugalketarako sasoian egin nahi diren taldekako kirol probak.

a.1) Pruebas deportivas colectivas que se pretendan celebrar en periodo de reproducción habitual de especies silvestres.

Taldekako kirol probak egunez egin beharko dira eta parte hartzaileen kopurua mugatuta eduki beharko dute, baldin eta probak espezie basatien ugalketarako sasoian egiten badira, hau da, otsailaren 1etik irailaren 15era bitartean. Parte hartzaileen gehieneko kopuruak hauek dira:

Las pruebas deportivas colectivas deberán realizarse únicamente en horario diurno y tendrán el siguiente límite en el número máximo de participantes cuando la fecha de celebración se establezca en periodo de reproducción habitual de especies silvestres, entendiendo como tal el que va desde el 1 de febrero hasta el 15 de septiembre:

Mendi-martxak: 500 parte-hartzaile.
Oinezko lasterketak: 300 parte-hartzaile.
Bizikleta-martxak: 150 parte-hartzaile.
Zaldiz edo antzeko animaliak erabiliz egiten diren ibilaldiak: 100 parte-hartzaile.

Marchas de montaña: 500 participantes.
Carreras a pie: 300 participantes.
Pruebas en bicicleta: 150 participantes.
Pruebas a caballo o similares: 100 participantes.

Taldekako kirol proba batean parte hartzeko modalitate batzuk daudenean, gehienez 500 pertsonak parte hartu ahal izango dute.

Cuando una prueba deportiva colectiva incluya varias modalidades de participación, el número máximo de participantes será, en todo caso, de 500 personas.

a.2) Espezie basatien

a.2) Pruebas deportivas

ugalketarako sasoitik kanpo egin nahi diren taldekako kirol probak.

colectivas que se pretendan celebrar fuera del periodo de reproducción habitual de especies silvestres.

Aipatutako modalitate bakoitzean edo modalitate guztien artean, gehienez 1000 parte-hartzaile egon daitezke.

Se establece un límite máximo de 1000 participantes en cualquiera de las modalidades citadas o como sumatorio de las mismas

b) Hegazti nekrofagoen ugalketarako aldi kritikoan (martxoaren 1etik irailaren 1era, alegia) egiten diren taldekako kirol proben ibilbideak EZIN dira igaro eremu kritiko horiek babesteko mugen barruan; babes-eremu horiek organo kudeatzaileak ezartzen ditu, eguneratutako datuetan oinarrituta.
c) Ezin izango da balizarik jarri ez markarik egin, ez pinturarekin ez ezabaezina den beste edozein elementurekin. Ibilbidea seinaleztatzeko erabiltzen diren elementuak berehala kendu beharko dira, azken parte hartzailea seinaleztatutako gunetik igaro eta gero.
d) Erakunde antolatzaileak proba amaitu bezain laster bildu beharko ditu hondakin guztiak, probaren parte hartzaileek nahiz ikusleek utzitakoak. Hondakinen gaikako bilketa egin beharko da.
e) Ez da baimenik emango bizikleta-

b) Las Pruebas deportivas colectivas que se celebren durante el periodo crítico para la reproducción de aves necrófagas, establecido de 1 de marzo a 1 de septiembre, NO podrán atravesar las zonas de protección de dichas áreas críticas, establecidas de acuerdo con los datos actualizados por el órgano gestor.
c) No se permitirá la realización de marcas, balizamientos o señales con pintura o elementos indelebles. Los elementos que se usen para la señalización del recorrido deberán ser retirados inmediatamente después del paso del último participante de la prueba por el punto señalizado.
d) La entidad organizadora deberá realizar de forma inmediata a la finalización de la prueba, una recogida selectiva de los residuos que sean depositados por los participantes o espectadores de la prueba.

probak egiteko egun dauden pista edo bidezidorretatik kanpo.

f) Debekatuta dago ikusleak naturagune babestuetan motordun ibilgailuekin sartzea.

e) No se autorizarán la celebración de pruebas ciclistas fuera de las pistas o senderos ya existentes.

f) No se permitirá el acceso de las personas espectadoras a los Espacios Naturales Protegidos con vehículos a motor.

Artikulu honetan ezarritako baldintza orokorrak gutxieneko betekizunak dira. Haietaz gain, proba bakoitza baimentzen duen foru aginduak baldintza bereziak eta babeserako baldintzak ezarriko ditu, proba natur balioei kalte egin gabe garatzeko.

Estas condiciones generales establecidas en el presente artículo deben ser consideradas como requisitos mínimos, las respectivas Ordenes Forales de autorización de cada prueba incluirán, además, las condiciones particulares y condiciones de protección requeridas para que cada prueba se desarrolle sin afectar a los valores naturales existentes.

Probak baimentzeko foru aginduetan, Europaren intereseko habitatak, mehatxupean dauden espezieak eta natur ondarearen eta biodibertsitatearen gainerako balioak babesteko behar diren kautelazko neurriak eta baldintzak jasoko dira.

En las respectivas Ordenes Forales de autorización de cada prueba se incluirán las medidas cautelares y condiciones precisas para la protección de los Hábitats de Interés Europeo, las Especies amenazadas y los demás valores del Patrimonio Natural y biodiversidad.

7.2) Kirol proba antolatzen duen erakundeak lortu behar ditu beharrezko lizentziak eta baimenak, eta, bereziki, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legean jasotako baimenak eta txostenak.

7.3) Erakunde antolatzaileak proba

7.2) Será a costa de la entidad organizadora de la prueba deportiva la obtención de cuantas licencias y permisos sean necesarios, especialmente aquellas autorizaciones e informes a los que se refiere la Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas del País Vasco.

egitean sor daitezkeen kalteen erantzukizuna izango du, eta aseguru bat formalizatu beharko du, jolas-jarduerak eta ikuskizun publikoak burutzeko eska daitezkeen erantzukizun zibileko aseguruak arautzen dituen Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 25eko 44/2014 Dekretuan ezarritakoarekin bat.

7.4) Taldekako kirol probek, lehentasunez, naturagune babestuetatik kanpo kokatu behar dituzte jan-edanak banatzeko eta kontrolerako guneak. Egoera jakin batzuetan, jan-edanak banatzeko guneak naturagune babestuetako erabilera intentsiboko aldeetan kokatu ahal izango dira, hala nola atsedenlekuak, nekazaritza eta basozaintzako eremuak, zurtegiak... Proba hegazti nekrofagoen ugalketarako sasoi kritikoan (martxoaren 1etik irailaren 1era, alegia) egiten bada, jan-edanak banatzeko guneak ezin izango dira jarri espezie horiek babesteko eremu kritikoetan.

7.3) La entidad organizadora asume la responsabilidad que se pueda derivar de la celebración de la prueba debiendo formalizar el correspondiente seguro conforme a lo establecido en el Decreto 44/2014, de 25 de marzo, de Gobierno Vasco, por el que se regulan los seguros de responsabilidad civil exigibles para la celebración de espectáculos públicos y actividades recreativas.

7.4) Las pruebas deportivas colectivas situarán los puntos de avituallamiento y control preferentemente, con carácter general, fuera de los Espacios Naturales Protegidos. En determinadas circunstancias podrán autorizarse estos puntos de avituallamiento en zonas de uso intensivo de los Espacios Naturales Protegidos, tales como áreas recreativas, aparcamientos en zona agroforestales, parques de madera, etc. Cuando las pruebas se celebren en fechas de reproducción de aves necrófagas (del 1 de marzo a 1 de septiembre) no se podrán poner puntos de avituallamiento dentro de las zonas de protección de las áreas críticas de estas especies la aplicación de esta condición.

**8. artikulua.-** Proba bakoitzaren baimenak ezarritako arau orokorrak eta baldintza bereziak betetzen direla zaintzea Bizkaiko Foru Aldundiaren basozainei, Ertzaintzari eta gainerako agintaritzako agenteei dagokie.

**Artículo 8.-** La vigilancia del respeto de las normas generales y condiciones particulares establecidas en la autorización de cada prueba corresponderá a los agentes forestales de la Diputación Foral de Bizkaia, así

como a la Ertzaintza y demás agentes de la autoridad.

**9. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.**

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, aplikatzekoak izango dira EAEko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua eta Mendiei eta Babestutako Naturguneen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Araua (martxoaren 20ko 2/2007 Foru Arauaren bidez aldatua).

**Artículo 9. Infracciones y sanciones.**

Será de aplicación, en cuanto a infracciones y sanciones, lo establecido en el Decreto Legislativo 1/2014 de 15 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Conservación de la Naturaleza del País Vasco y en la Norma Foral de Montes y Administración de Espacios Naturales Protegidos 3/1994 de 2 de junio modificada por la NF 3/2007.

**Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.**

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

**Disposición final única. Entrada en vigor.**

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOB.

Dado en Bizkaia, a de de 2017
Bizkaian emanda, 2017ko ……..ren (e)an

Bizkaiko Ahaldun Nagusia
Diputado General de Bizkaia

UNAI REMENTERIA MAIZ

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatua
Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural

ELENA UNZUETA TORRE

I. ERANSKINA

TALDEKAKO KIROL PROBEN ARAUKETAK ETA LOTUTAKO KARTOGRAFIAK ERAGITEN DIETEN NATURAGUNE BABESTUAK

Parke naturalak

-Urkiola
-Gorbea
-Armañón

Biotopo babestuak

-Itxina
-Gaztelugatxeko San Juan
-Meatzaldea-Zona Minera de Bizkaia

Natura 2000 sareko kontserbazio bereziko eremuak

-Ordunte
-Urdaibaiko Artadi Kantauriarrak
-Urdaibaiko Itsasbazterrak eta Padurak

Hegaztientzako babes bereziko eremuak

Garobel Mendilerroa

ANEXO I

ESPACIOS NATURALES PROTEGIDOS A LOS QUE AFECTA LA REGULACIÓN DE LAS PRUEBAS DEPORTIVAS COLECTIVAS Y CARTOGRAFIA ASOCIADA

Parques Naturales.

-Urkiola
-Gorbea
-Armañón

Biotopos Protegidos.

-Itxina
-San Juan de Gaztelugatxe
-Meatzaldea-Zona Minera de Bizkaia

Zonas Especiales de Conservación de la Red Natura 2000

-Ordunte
-Encinares Cantábricos de Urdaibai
-Zonas Litorales y Marismas de Urdaibai

Zonas de Especial Protección para las Aves.

-Sierra Salvada.

II. ERANSKINA

TALDEKAKO KIROL PROBA BAIMENTZEKO ESKAERA EGITEKO FORMULARIOA

ANEXO II

FORMULARIO PARA LA SOLICITUD DE AUTORIZACION DE PRUEBA DEPORTIVA COLECTIVA